

Viewer, metal hardcore taldearen lehenengo diskoa laster izango da kalean

Uckaiaren oinorde da Viewer. Uckaiak ezin izan eutsan eutsi pandemiaren sasoiko ia hiru urteko isilaldiari eta desegin egin zan kalean hiru disko eukazanean eta Europako bira prestatzen zala. Taldeko batzuek baina, josten segidu gura eben eta berehala sortu eben Viewer; aurrekoa baino gordinagoa. Taldearen lehenengo diskoa kaleratuko dabe laster eta Ager Barragan kantuen letren egile eta bateria-joleak azaldu deutzaz nondik norakoak BEGITUri. **12. orrialdea**



Prestige-ren hondamendiko galipota ea Bistibietan dagoan galdereari erantzun barik segiduten dabe

Urtailaren 12an, Elkarrekin-Podemos-eko Miren Gorrotxategik, Eusko Jaur-laritzeari galdetu eutsan ea zein zabortegitan itxi ziran lhoberen txostenean aitazen diran eta Petronorrera joan ez ziran fuel-olio hondakinen %37ak, eta zabortegi hori Bistibietakoa balitz, ea baeukan baimenik fuel-olio hondakinentzako. Izan be, ia hamarkada bitan hori izan da inguruan bizi diranen eta talde ekologisten susmoa, handik sortutako "sufre eta hidrokarburoen hatsa-gaitik". Argiak argitaratutako erreportaje batek jasoten dau honen inguruan egin diran galderak eta erantzun faltak. **8. eta 9. orrialdeak**



Korrikako kilometroak erosi daitezke AEK-n

Korrikako lekukoa eroateko, alkarte, enpresa, talde, kuadrilla edo norbanakoek erosi lekie kilometroa AEK-n. Arratian eta Zeberion 59 kilometro egingo ditu Korrikak martiaren 22an eta Bedia, Ubide eta Zeanuritik pasauko ez dan arren, herriatik ahalik eta hurren topauko deusiela lekua azaldu deutso BEGITUri Lurdes Ortega AEK-koak eta danontzat egongo dala lekua dino. **7. orrialdea**



AREATZA

Urkullu Lehendakaria Areatzan egon zan eskolea ikusten

Iñigo Urkullu Lehendakariak, Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak, Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburuordeak, Iñaki Orbe Hezkuntzako Bizkaiko lurralde ordezkariak eta Peru Perez de Anuzita Areatzako alkateak besteak beste bisitau eben eskola barriztaua urtailaren 17an. **5. orrialdea**



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Aratustek zezeilaren 9tik 13ra

Zezeilaren 9 eta 13aren bitartean egun desbardinetan ospatuko dira Aratustek Arratia, Ubide eta Zeberion. Herri gehienetan astegoienean, Bedian barriz, martitzen karnabalean, hilak 13.

Estilo desbardinetak karnabalak izango dira: batzuk tradizioa birsortzen saiatuko dira, tradizioak berrasmutzen; beste batzuk, disfrazen bitartez egunerokotasunari beste begirada bat emoten. **6. orrialdea**



ARRATIA

Agate Deuna bezperako koplak barriro entzungo dira

Betiko lez, Arratiako Koruak bere errepertorioa kantauko dau Arratia, Zornotza eta Bilbon. Beste koru ugari be, makilak hartuta, egingo dabe eske errondea herri eta auzuneetan. Hurrengo domekan, Zeanuriko Agate Deunaren ermitan, III. mendeko Cataniako gaztearen bizitza eta heriotzea kontetan dabezan koplak kantauko ditue mezan.

Adibide batzuk baino ez dira. Izan be, Agate Deuna bezperakoa bizi-bizirik dagoan tradizioa da gurean eta koru ugari ibiltzen dira koplak desbardinak kantetan.

Aurten kanporamartxo be bada zezeilaren 4an eta txixi-burduntziak ez dira faltauko inguruko landetan. **6. orrialdea**

Literatura txokoa

AINGURAK ERREKETAN

Utzidazu karmina kentzen (Urtzi Urrutikoetxea, Kutxa Fundazioa), *Amodia batzuetan* (Juanra Madariaga, Euskaltzaindia-BBK) edo *Septentrio* (Aurelia Arkotxa, Alberdania) poema liburuak zein beti poesiaren mugetan dabilan Asier Serranoren *Hoteleko kontuak* narrazioak (Apokaliftin) danak argitaratu ziran 2001eko urte lirrikoki oparoan. Baina urte haretan gaur zuri, irakurle, gomendatu gura deusudan maisulana be argitaratu zan (Kirmen Uriberen *Bitartean heldu eskutik* ahaztu barik, hori bai): pisua baina galzua lez arina, festina lente landu eta ederra heldu zan Zarautzeko mobimentu jori eta aberatsetik Jon Benitoren eskutik.

Aingurak erreketan (Susa)

liburua *opera prima* harrigarriro heldua da, trinkoa eta ertzik bakoa. Estridentziarik ez dakar, eta hunkidura triste batek jotzen irakurlea, isila eta era berean ozena da bere barne korronte erdi errebindikatzailea erdi intimoa. Berez be isila eta uxoa da Jon Benito, bere luma lez.

"Hitz batzuk aipatu/eta leihoraino hurbildu zen/—ispilu garden hartara—/Ireki eta margotu ez zituen haiekin osatu zen/begiak galdu zitzaizkion mugagabe// Elurra lehen aldiz oin biluzien azpian".

Ur azpian loturik dagoalarik korronteek dakarrezan barriak entzuten dituan ainguraren antzera, gutako baktxaren kontra jo eta jo dabilan bizitzaren olatuaz

egiten dau berba idazleak. Hain ondo esaten dauz gauzak ze, bardinean, gurago dogun berak deskribidutako eszena benetan bizitakoa baino. Poesian, izan be, irudimenekoa, bizitakoa, sentidutakoa eta euren gainean asma-tutako esaldien artean ez dago askotan harreman logikorik. Liburu honek hori esplotau eban: urri-nekoa emoten dauana hurreratu egiten dau eta inmediatea urrundu. Guzurrezko konbinazioen artean egiazkoa eta probetxuzkoa izan zan zeozer sortu eban Jon Benitok. Egia bera.

Igor Estankona



Jon Benito

Aingurak erreketan

Susa, 2001

88 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urtailaren 29tik zezeilaren 4ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 5tik 11ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 12tik 18ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunean orduro 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunean: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa-Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunean: 06:45etik 20:45era orduro.

Durangoetik. Lanegunean: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik 21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunean: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era orduro.

Eibartik. Lanegunean: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduro.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunean: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunean:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunean: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunean: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzinoaren arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XL). Kale berbakunea sustatu guran

ARRATIAKO HITANOA

- Hi Mikel!
- Zer **gurok**?
- Konturatu haz Arratiako segun ze lekutan hitanoa diferentea **dokela**?
- Bai jauna! Hak ekarri **jok** (dau) esateko, Zeanurin ekarri **jauk** esaten **jauriek**.
- Nok emon **doa** (deutsu) esateko, nok emon **dosta**.
- Emon **doadia** (emon deutsue) esateko, emon **dostia**.
- Orduan arratierea esateak, **bajekok** zentzurik?
- Ba etxakiat baina Usansoloko hitanoa be Arratiakoaren modukoa **dok**.
- Ha be Arratiako mapan sartu beharko **juk** orduan, kar-kar-kar.

ERETXIA

Santa Ageda- Agate Deuna

Aurreko urteetan lez, Santa Ageda edo Agate Deuna aintzalduko dogu Euskal Herriko hainbat herri eta auzotan zezeilaren 4an. Izan be, aspaldiko ohitura da gurean etxerik etxe, baserrikerik baserri zein urietan koplak abestutea, makileagaz lurra joaz eritimoa jarraituten dogun bitartean, neguko solstizioaren ostean Ama Lurra itzartuteko.

Nor izan ete zan aintzalduten dogun santa hori? Ageda edo Agata izeneko andrea Catanian, Sizilian, jaio zan 230. urtean. Tradizioak dinoanez, etxe oneko neska oso ederra zan eta Quinciano gobernadoreak beragaz ezkondu gura eban, baina Agatak muzin egin eutsan haregaz ezkontzeari eta Quincianok kartzelaratu egin eban, mendeku moduan. Kartzelan bularrak ebagi eta hil arteko torturak sufridu ebazan. 251. urteko zezeilaren 5ean hil zan espetxean, 21 urteko neska gaztea.

Agata gaur egun Cataniako katedralak hartuten dauan lekuan lurperatu, Eleizak martiri eta santa izentau eta zezeilaren 5a aukeratu eban bera omenduteko. Horren ostean, Cataniako santearen izena lau haizetara zabaldu zan eta leku askotan gogoratzen dogu gaur egun.

Sinismendunek hainbat mendez eskatu deusie bularretako gaixotasuna osatutea Santa Agedari. Gurutze Arregi lemoaztar etnologoak jaso ebanez, bularretan arazoak eukiezan edo esne gitxi eukien Bizkaiko andrak Dimako Agate Deunaren ermitara joaten ziran euren gaitza osatuteko eskatuten.

Beste leku batzuetan, Sala-



MARISA BARRENA LARRUZZEA

Ekintzailea

mancan eta Zamoran, andren alkarteek udalaren aginte makila jasoten dabe eta ospakizun handiak izaten dira Agataren omenez. Segovian, Burgosen, Castellón zein Jaenen be jai handia izaten da zezeilaren 5a.

Halanda be, makilak astinduz, kantuan dirua batuten ibiltea Euskal Herriko ohitura da, antza. Hemendik kanpora ez dot holakorik egiten danik topau behintzat. Antza danez, ospakizunak bere zuztarrak kristautasuna zabaldu aurreko sasoian daukaz. Aditu batzuen eretxian, Agataren inguruko jaiek zerikusi handia daukie inauteriakaz, inauste edo kimatze garaiko erriokaz.

Atzen urteotan zenbait bertolarik, euskaltzain zein talde feministek egin ditue euren ekarpenak koplei beste aire bat emonaz. 2016an, Euskadi Irratian Maialen Lujanbiok *Beti Bezperako Koplak* Santa Ageda koplak berezia bota eban genero-indarkeriaren salaketa gordina eginaz. Bertsoz bertso, indarkeria matxistaren agerpen desbardinak salatu ebazan, bai eta ha gaintzetezko ezintasuna be.

Bide beretik Bilboko La Kora abesbatza feministako andrek be 2020an Bilboko kaleetan zehar koplak abestu ebazan. Konzientziak astindutera, tradizio bat berrikustera eta Agedaren tortura salatzeru urten eben kalera. "Beragaitik, gugaitik eta isildu arazotako andra guztiengaitik abestuz, askatasun eta bizitza gurariak airera botaz".

Ondo legoke aire barriok gure kantu letretan be kontuan hartzea eta eskola eta ikastetxeetan be azaldutea: Agata erlijinoaren martiria baino, andra baten ezeztza onartu ez eban agintari krusdelaren indarkeria matxistaren martiria izan zala.

Arantzazuko Herriko Taberna berririk zabalik!

Danielma eta Kristian

Pintxoak, gosariak, eguneko menuak, urtebetetzeak, oinarritzko produktuak...

09:00etatik zabalik (astelehenetan jai eguna)

LUMATUTEN



IDOIA EIZMENDI

Irudiak

Irudi bortitzak publiketearen etikeari buruzko eztabaideak galdera asko plazaratzen ditu. Zilegi da besteen sufrimentua erakustea? Erretratatu objetualizatzen gabiz? Biolentziaren errepresentazioaren errepikapenak matxinatu arazo ala anestesia egiten gaitu?

Batzuen ustez, gerrearen horrorea erakusteak jentea posizino antibelikora eroango leuke. Hori izan zan Ernst Friedrich konzientzia objetorearen asmoa, 1924an *Gerra gerraren kontra* argazki bildumea argitaratu ebanean. Liburuak ehun ta laurogetik gora argazki bildurgarri jasoten ditu: hondamendia, soldaduen zaurien lehen planoak, urkatutako konzientzia objetoreak, kuartel militarretako prostituta sasi biluziak edo haur armeniar eskeletikoak.

Gervasio Sanchez fotokazetaria ezaguna da jentearen eskubideak daukan konpromisoagaitik. Bere posizino argia da: "Bildurgarriena ume

hilak egotea da, ez argazkiak. 42 urtean, inoz ez deust eskatu suntsitutako ume baten senide batek, Balkanetan, Sudanen edo Afganistanen argazkirik ez aterateko. Alderantziz, esaten dabe: "Jenteak jakin dagiala zer gertatzen dan".

Leica argazki kamera arina asmatu zanetik, fotokazetariak gerra jakin batzuen barri emon deuskue. Beste asko agendatik kanpo geratuko dira, eta irudi eta informazio barik ikusezin bihurtzen dira.

Zenbait fotokazetarien alkarrek kode deontologikoa sortu dabe euren lanbidean etikearen mugak gainditzeko arriskuaz jaubetuta. Mobimentu sozialetan be asmau behar dogu zelan salatu barbariea biktimak deshumanizau barik. Feminismoak aspaldi txarresi ebazan andra kolpetuen irudi morbosoak eta duintasun bakoak. Baina, Melillako gorputz pilotutakoak karteletan erakustea, etikoa da?

Susan Sontag-ek *Ante el dolor de los demás* entseguan hausnartzera gonbidatzen gaitu. Sufriduten dagozanakazko sinpatia sentiduteak gure inozentziaren seinaleztat hartu daikegu. Baina, pentsau daigun gure pribilegioak eta persona horreen sufrimentua mapa berean kokatuta dagozala eta loturea daukiela.

ZERTZEAN



RAFA UGALDE

Ume leuna izan nintzen ni, lotsor neure ahuleziaz, ahul oraindik aldean daroan umearen negarra gordetzeko, gainerakoek negarrari bidea galarazten ziotenean; mutilok gorde egin behar izaten baikenituen negar-antuluak, eta niri gainez egiten zidaten, geldiarazitako uren amorruak uriola bihurtu eta presari gainez egiten dion moduan, zigor fisikoaren oldeari men egiten nionetan.

Baina gainerakoen aurrean jasotzen nituen umiliazio haiek malkoek baretu zituzten.

Bentzutu nindutenean, hortzak lurrean inkatuak, malkoetan aurkitu nuen kemen.

Baztertu egin ninduten eta ez nuen lagunik aurkitu neure negarra baino.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredu ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

Ume leun hura

Bidegabekeriaren aurrean ezgai, hura izan nuen sosegu.

Minez aurkitu zintudanean nire negar-antuluak izan zenituen sendagai.

Desmaitasunaren eremuko basamortuan negarra izan nuen babes eta laztan.

Egun, egindako bideak atzerantz begiratzeko perspektiba ematen duelarik, hainbestetan negar egin ostan!

Orain, heldutasunak neure buruari gizon esatea ahalbidetzen duelarik, negar-antuluak ditut bizialdia ingudean eratu dudan gizonari itxura emateko behar izan dudan mailukada jasa.

BEGI TXINDORRA

Kontraesan batzuk:

-Buru osasunerako teknologia digitala gitxiago erabilteko kanpainak, edozein zerbitzu erabilteko, prozesu parte hartzailean ekarpenak egiteko edo aisialdirako jardueraterako aplikazio baten bidez egin behar danean partaidetzea.

-Gazteak emanzipetako kanpainak, lan prekarioan oinarritutako ekonomia bultzatzen dan bitartean.

-Garraio publikoa bultzatzeko kanpainak, erabilera unibersala sustatu beharrean, batzuentzat bakarrik eta jarduera jakin batzuetarako bakarrik eskaintzen bada garraioa. (Eta proiektu pilotuen bultzatzaileak be ez diranean erabilzaile potentzialen artean sartzean).

-Proposamen "zikloturista" bat munduari aurkeztea, 1.252 metroko desnibelduna, eta bazterbide bako errepide estuetatik pasetan dana. Eta errepide barriak bazterbide barik egiten jarraitutea.

-Jubilazioari edadismo deitzea.



La'lyette - Paris - Londres.
BARBIE-BENJARDY (1841-1877.)

Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa
hagin klinikak

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
ikolagata Zerbaita 101
R.P.S. 31/06

BEDIA

Liztor asiarra harrapetako tranpak bananduko ditue Bedian hilaren 7an

Erredakzioa

Goibealde Landa Garapen Alkartek martxan ipinitako liztor asierra (*vespa velutina*) espezie inbaditzailearen kontrako kanpaina aurrera doa. Urtailean, Areatzan, Artean, Diman, Igorren, Lemoan eta Zeanurin egon ziran teknikariak kanpainearen garrantzia azaltzen, aurreko urteko balorazioaren barri emoten eta erreginak harrapetako tranpak bananduten, besteak beste. Zezeilaren 7an, 18:00etan, Bediako liburategian egongo dira berbaldia emoten, tranpen osagaiak zeintzuk diran azalduko dabaz eta zelan egin tranpa horreen jarraipena be.

Erleen etsai

Oin dala hamarkada bat baino gehiago heldu zan Asiako liztorra Euskal Herrira. Espezie inbaditzaile honek, Euskal Herrian ez



dauka etsai naturalik eta bere dietan erleak dagoz.

Erleen eskasiak, erle-zainak kaltetzeaz gainera, desoreka ekologikoa dakar inguruan. Hori dala- ta, urtero, liztorrak harrapetako kanpainak egiten dira hainbat herritan.

ARRATIA

Altxau burua kanpaina abiatu da Arratian, umeez eskuko telefonoaren erabilera osasuntsua egin dagien

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateko egoitzan, Arratia osotik etorritako 50 guraso batu ziran urtailaren 23an. Bilerearen helburua, umeez telefono mobikorraren erabilera osasuntsua izateko proiektu bat martxan ipintea zan.

Lehenengo batzar honetan, mahai gaineratu zan gaiaren inguran gurasoek daukien ardua, eta aurrera begirako ebatzi batzuk hartu ziran. Holan, udabarrian, erabilera egoki baterako konpromiso-dekalogoaren sinaketa-ekitaldi publiko bat egingo da. Dekalogo horreek lantaldeka osotuko dira eta, besteak beste, umeari lehenengo telefonoa emoteko adina atzeratzea landuko da.

Dekalogoak egiteko, hiru lantalde ipiniko dira martxan, seme-alaben perfilen arabera: ume txikiak, 9 urte artekoak, dituen gurasoak; mobikorra euki-

teko presino soziala igartzen debent seme-alaben gurasoak; hau da, 10 urtetik aurrerakoak, eta mobikorra daukien seme-alaben gurasoak, erabilera osasuntsu bat sustatuteko, hain zuzen be.

Erabilera osasuntsua

Erabilera osasuntsua sustatzeko, heziketan sakontzeko egitas-

moak antolatuko dira; berbaldia, tailerrak eta konzienziak kanpainak, besteak beste. Eta hau guztia landuteko, Arratiako hainbat eragilez lan egiteko asmoa agertu eben partaideek.

Informazio gehiago jaso gura dabenek, prebentzioa@arratia.eus helbidera idatzi edo 688 643 305 zenbakira deitu leikie.



Arratiako Udalen Mankomunitatean egindako batzarra.

AREATZA

Lehendakariak Areatzako eskola publikoko instalazino barriak ikusi ebazan

Urtilaren 17an, Iñigo Urkullu Lehendakariak, Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburua, Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburuordea, Iñaki Orbe Hezkuntzako Bizkaiko lurralde ordezkaria eta Peru Perez de Anuzita Areatzako alkateagaz, bisitau eban Areatzako eskola barriztaua, eskolako zuzendaritza taldearen gidaritzapean. Eusko Jaurlaritzak 4,1 miloi euroko inbersinoa egin dau erakinak barriztau eta handitzeko.

Erredakzioa

Areatzako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak 2 eta 12 urte bitarteko 123 ume ditu 2023-2024 ikasturtean eta Hezkuntzako hogeitatu profesional arduratzen dira ikasle horreez guztiez. Gabonetako oporren aurretik estreinau eben ikasle eta irakasleek instalazino barriak. "Benetan uste dot eraikuntza lanak ederto geratu dirala, beraz zorionak guztioi" esan eban Lehendakariak. "Ikastetxe batek zuzeneko eragina dauka ikasleen hezkuntzan". "Instalazinoek bada-be zeresan handia ikasleen esperientzian. Ahalegin handia egiten gabiz ikastetxeak barriztatu" gehitu eban. Irakasleen lanaren garrantzia azpimarratu eta oin-

dala gitxi onartutako Hezkuntza lege barri hartu eban Lehendakariak berabagai. "30 urteren ostean gure Hezkuntza sistema indarbarritu, eguneratu eta bultzatu egin dogu guztion artean, gaur egungo beharizanei eta erantzuna emongo deutsan legea da" esan eban. "Hezkuntzak libreago egiten gaitu eta honenbestez Hezkuntzan inbertiduten dauan gizarte bat beti izango da askeagoa" esanez amaitu eban bere berbaldia.

Eraikin moltso bakarrean

Eskolako eraikin bietan egin dira lanak: Haur Hezkuntzako etaparako erabilten dan eraikin historikoan lehen zaharren egoitza izandakoa eta Lehen Hezkuntzako eraikinean. Bien artean, gimnasio estali barria eta eraikin biak lotuten dituan sa-

rrerako gune barri bat be eregi dira. Holan, eraikin moltso bakarra osotuten dabe bie, lorategiz inguratuta.

Barriztatzerik sakonena eraikin

historikoan egin da, Bolibar zaharren egoitza izandakoan. Eraikin horretan, erdisotoan, sukalde barria (37 m²) eta jangela (93 m²) egin dira. Ekialdeko fatxadaren dagoanez, argi naturala eta kanporako urtekerak zuzena ditu jangelak. Beheko solairuan Haur Hezkuntzako gelak dagoz. Gela honek be urtekerak zuzena daukie kanpora, hegoaldera begira dagoan fatxadako aterpera eta lorategiko jolaslekura. Lehen solairua osorik barriztau eta birbanandu da eraikin honetan eta ikastetxearen administrazino eremua kokatu da bertan. Eraikinaren barruan, eskailera eta igongailu barriak ipini dira. Egoitzako kapera izandakoa, psikomotrizidade gela (75 m²) izateko egokitu da.

Gimnasio barria

Lehen Hezkuntzako eraikinean, espazio batzuk birbanandu eta Haur Hezkuntzako erakinerantza hedatu da. Eraikin bien artean eta eraikinok lotuteko gimnasio estalia (191 m²) egin da, erabilten ez zan espazio baten.

Gimnasioaz gainera, eraikin bien artean, sarrerako gune barri bat egin da. Atari honek eraikin biak eta etapa biak lotu, batu eta artikulatzen ditu, eskola moltso bakarra osotuz. Kanpokaldean be espazio batasuna lortzeako, eraikin bien lursailak bereizten ebazan hormea bota da. Orubearen hegoaldean, eutsi egin jakie egoitzak eukazan berdegune eta lorategiei, eskoleak erabili dagiazan.



Areatzako eskolako inaugurazino ekitaldia.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Agate Deunaren koplak eta txitxi-burduntzi ugari antolatu ditue hilaren 4rako

Aurten bat egiten dabe Agate Deunaren bezperek eta kanporamartxok eta herri batzuetan alkarteak gauza biak buztartzen saiatu dira, kantuan errondan ibili ostean, txitxi-burduntziagaz amaituteko edo alderantziz.

Erredakzioa

Urtero lez, Arratia, Ubide eta Zeberio koruz beteko dira zezeilaren 4an, Agate Deunaren bezperan, ondo zuztarta dagoan tradizio honeri eutsiz. Alkarteak, taldeak eta kuadrillak ibiliko dira, makila eskuan, koplak kantetan eske errondan.

Arantzazun, 11:00etan da hitzordua, plazan batu eta herritik koplak kantetan joateko. Ostean, 13:00etan, kopaua egongo da Herriko Tabernan, kantuan ibili diranentzat.

Areatzatik urtetan da Arratiako Korua, goizeko 08:00etan bertan mezea entzun ostean eta Areatzan amaituko dau errondea 21:30ak aldera. Aurten kanporamartxo egun berean danez, Lamino Kirol Klubak deialdia egin dau 10:00etan eleiz portalean batu, Upora igon eta han kanporamartxo ospatuteko.

Artean, jubiladuen alkarteak antolatu dau kanporamartxo ibilaldi baten ostean. 09:30ean ekingo deusie ibilbideari eta 13:00etan izango da txitxi-burduntzia Elexabeitin. Kokomarroak 11:00etan batuko dira plazan, auzoz auzo santa eskean ibilteko. Plazatik urten eta Kalleja, Larrazabal, Esparta eta Goikotik pasauta, San Martinen jubiladuakaz alkartuko dira, danak alkarregaz joateko Elexabeitira.

Bedian, Ganguren Mendi Taldeak antolatu dau kanporamartxo goizean eta arrastiko 17:00etan batuko dira bediazarrak herriko plazan auzoz auzo kantuan joateko.

Diman, guraso alkarteak antolatu dauz Santa Ageda bezperea eta kanporamartxo. 10:00etan, eskolan alkartuko dira koplak kantetako, eta Ibarra, plazea, Piedadea, Landaburu, Telleri eta Bikarregitik pasau ostean, Oban amaituko dabe errondea. Han, Obako plazan, kanporamartxo egingo dabe. Txorizoa, urdaia eta pamtixa eta burduntzian erreteko aukera beganoa, guraso alkartearen kontura izango da; baina burduntzia etxetik eroan beharko dabe partaideek.

Igorren, guraso alkarteak eta Arantzarte jantza taldeak deituta, 11:30ean batuko da edade guztietako jentea Kultur Etxean, herritik zehar eske errondeari



Arratiako Korua igaz Areatzan.

ekiteko.

Lemoan, arrastiko 17:30ean, udaletxeko plazan da hitzordua, makilak hartu eta Agate Deunaren koplak kantetan urteteko.

Ubiden, 16:00etan batuko dira herritarrek plazan, herri eta auzoetatik kantuan egiteko.

Zeanurin, koru ugari dagoz auzuneetan eta urtero-urtero baserririk apartatuenetara be hurreritzen dira. Horrezaz gainera, aitzeko da ermitan Agedaren bizitza kantetan dauana, Agate Deuna egunaren osteko lehenengo domekan. Hilaren 11n izango da aurten. Meza ostean, barauskarria eta txistulariak egongo dira ermita inguruan.

Zeberion gurasoek egingo dabe santa eskea ekolako umeakaz.

Honeek batzuk baino ez dira. Beste koru asko be ibiliko dira Agate Deunaren bezperan, makilak hartuta, lurra esnatzeko koplak kantetan eta eske errondan. Arratiako Koruagaz be beste hitzordu bat gehiago daukie Arratiako herrietan, koru handienetako eta mitikoenagaz batera, hainbeste bider errepikatuko diran koplak kantetako.

Arratiako Korua

Garazi Navasen zuzendaritzapean, Arratiako Koruak be, aurten 73.ez, egingo dau bere ibilbidea Arratiatik eta Arratiatik kanpo. Koplak kantetan batutako dirua Caritasentzat izango da.

Aurreikusitako ibilbidearen arabera, partaideek 07:45ean hartuko dabe autobusa Igorren Areatzara joan eta hango parrokan mezea entzuteko

08:00etan. 08:30ean izango dabe urtekerea; 08:45ean, Zeanurin kantauko dabe; 09:05ean, Arantzazun; 09:20an, Diman; 09:35ean, Igorren; 09:50ean, Lemoan, 10:05ean, Bedian; 10:15ean, Usansolon eta Zorrontzan, 10:40ean kantauko dabe. Ostean, barriro be autobusa hartu eta Bilbora abiatuko dira.

Han, 11:45ean, kantauko dabe Begoñako Basilikan eta ostean Bilboko errondeari ekingo deusie: San Antonen, Erribera merkaduan eta metroan izango dira euren koplak eta makilakaz; 13:00etan Arenalean eta 13:15ean, udaltxean kantauko dabe. 13:35ean, Ibaigane, Laboral Kutxa, Ledesma, BBVA eta BBKtik jarraituko deusie errondeari. Ostean, 14:20an Bizkaiko Foru Aldundian eta 14:45ean Guggenheim museoan izango dira kantuan. Gero, 15:15ean, bazkaldutako etenaldia egingo dabe.

Bazkalostean Bilboko ibilbideari ekingo deusie barriro, 17:00etan, Epaitegietan, Zabalgunean, Moyuan, Egileor Plazan, La Viñan, Kale Nagusian, El Corte Inglesen eta plaza biribilean kantetako. Ostean, 19:00etan, Unamuno Plazan, eta Donibane plazatxoan. Amaitzeko, 19:45ean, Santiago katedralean, eta 20:20an, Arriaga aurrean agurrak egingo deusie Bilbori.

Arratiako Korua 20:30ean bueltauko da Arratiarantz. Geldiunetxo bat egingo dau Galdakaon 20:50ean eta 21:20an, Artean izango da. Egunari amaierara 21:30ean emongo deusie Areatzako Gudarien plazan.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Kokomarroak, txuxoak eta disfrazak ikusi ahal izango dira kaleetan Aratusteetan

Erredakzioa

Hilaren 9 eta 10, bariku-zapatuan ospatuko ditue herri gehienek Aratusteak gurean. Bedian barriz, martitzen karnabal egunean egingo dabez ospakizunak. Antxinako tradizioak berreskuratzen dituen mozorroak eta gaurkotasunari lotutako disfrazak izango dira auzo eta kaleetan. Umeentzako jolas eta ikuskizunez betetako Inauteri jaialdiak eta desfile koloretsuak be ez dira faltauko.

Mozorroak prestatu behar direnez, Inauteriak, bidaiak legez, hiritan disfrutetan dira: alde aurretik, prestatukeran; momentuan, bizitean eta ostean, gogora ekartean. Prestaketak be alkarregaz egingo dabez arteaztarrek; izan be, zezeilaren 9an, 18:00etan, alkarregaz mozorroak jantzeko alkartuko dira Kultur Etxean. Ostean, 19:00etan, kalejiran urtego dira "eta jantza pare bat egin ostean, Infanten Kuberue erreko dogu" azaldu deusie BEGITURI Ixone Aroma Kokomarroak taldekoak. Aurretik be jaialdia egongo da, 16:30ean, guraso alkarteak antolatuta, musikea eta txokolateagaz plazan.

Aratusteetan, gatx guztiak sinbolizetan dauan panpin bat erretea jai honeen muinean dago eta Artean Kuberue legez, Diman Txuxoa (txorimaloa) erreko dabe. Abizarie kultur alkarrekoak, txuxo jantzita, jantzan eta kantuan ibiliko dira herrian zehar, erre aurretik "herria eta artoa" jagoteko eskatuz. Zapatuan, hilak 10, 18:00etan batuko dira plazan eta txuxoak herritik ibiliko dira eta jantzaldia eta txitxi-burduntzia egongo dira. Gero Txuxoa erre eta txokolatea bananduko da bertaratutakoen artean.

Igorren, "mozorroa jantzi, disfrazak etxean itxi" lemapean egun biko jai egitaraua prestatu dabe. Barikuan, hilak 9, 17:00etan hasiko da jai, Arantzarte jantza taldeak antolatutako kalejira bat egaz. 18:00etatik 20:00etara, DJ Ismak animatutako disko festa egongo da Kultur Etxeko plazan eta txokolatea egongo da bertaratutakoentzat, 19:00etan.

Hurrengo egunean, 12:30ean, kalejira egongo da Garbetik hasita eta 15:00etan herri bazkaria eskolako aterpean. Ostean erromeria Fan&Go taldeagaz eta erromeria bitartean, mozorrorik onenei sariak emongo deusez. Jai amaituteko, 20:00etatik aurrera, Kittu taldea ibiliko da Igorrekaleetan zehar.

Desfile koloretsuak, tostadak eta gehiago

Arantzazun, domekan ospatuko dabez herrian karnabalak. Arrastiko 18:00etan, Mozorro eta Tostada Lehiaketea egingo dira Herriko Tabernan eta ostean, txokolatea bananduko da bertaratzen diranen artean.

Areatzan, zapatuan, hilak 10, izango da jai. 13:00etan, kalejira egongo da musikeagaz; 15:00etan, baba-jana Bainuetxean eta 18:00etatik aurrera kalejira herrian zehar Etxebarria aita-semesterikilariakaz. Hori dana, jakina, mozorro egitera animetan dabe antolatzaileek. Mozorro edo disfraz onenek saria izango dabe, bai taldekoek, bai norbanakoek.

Lemoan umeentzat antolatu dau Inauteri jai Udalak. Zapatuan, hilak 10, 17:00etatik 20:00etara kiroldegian izango da eta txiki-txokoa, makillaje guinea, *Photocall*-a, txokolatea eta disko festa ez dira faltauko. Harrikerarrak Gazte Asanbladeak be, erromeria antolatu dau Gautegun taldeagaz, 23:30etik aurrera Karbie Gaztetxean.

Ubiden, zapatuan, hilak 10, ospatuko ditue Aratusteak. Ubidezarrak 18:30ean batuko dira plazan, mozorro desfilea egiteko. Danon artean aukeratuko dabe mozorrorik onena, kutxa baten botoa emonez. Ondoren txitxi-burduntzia egingo da Korrikaren alde. Hau da diru bilketea egingo dabe Korrikako kilometro bat erosteko.

Zeanurin, umei zuzendutako jai izango da batez be. Barikuan, hilak 9, 17:00etatik aurrera, Altxorraren jolasagaz entreteniduko dira txikerrenak. Ostean, ludotekan, banpiro jantzi eta plazara joango dira desfilea egiteko.

Zeberion, barikuan, hilak 9, txokolatea bananduko dabe 18:00etan plazan eta 19:00etan, jantza-plaza eta musikea egongo da.

Bedian martitzen karnabal

Martitzen karnabalen, hilaren 13an egingo dabe Bediako frontoian umeentzako Inauteri Jai. 17:30ean, desfilerako izena emon eta argazkiak egin ahal izango ditue *Photocall*-ean. 18:00etan, desfilea egingo da. Ondoren, 18:30ean, Txintxeta, Klipa eta Txorroskilo pailazoen *Zu eta ni sudur luze bi* ikuskizuna eskainiko dabe eta jaiari amaierara emoteko txokolatea bananduko da ume zein nagusien artean.

Bezperan, 17:15etik 19:15era, Inauterietako tailerrak egongo dira liburutegian, familientzat.

IGORRE

Euskera Plan barria diseinetako parte hartze prozesua abiatu da

Erredakzioa

2018an abiatutako Igorreko Euskaren Plan Estrategikoaren indarraldia amaituta, 2024-2029 epealdiko Euskara Plan barria diseinetan hasita dago Igorreko Udala. Udalak herritarrei emon gura deutse aho-tsa eta lehenengo pausua etxetara galdetegi bat banandutea izan da. Ahize AEK-k egingo dau egungo egoeraren ebaluazioa eta plangintza barrirako lan ildo nagusien diseinurako proposamena.

Galdetegiak euskeraz eta gaztelaniaz eta euskarri desbardineta banandu dira. Helburua, herritarrek euskerearen sustapenean zein lehentasun daukiezan jakitea da, eta ikustea zelan baloretan dabezan atzen plangintzaldian egindako ekintzak.

Honek dira balorau beharreko ekintzak: Inbiu Eguna, Euskaraldia, Korrikan parte hartzea, Euskerearen Eguna, jaietan egindako "Umore euskalduna" ekintza, Euskera Agoan ekintza jolasorduan, kantu-poteoa, ermitetan kale-animazioa bultzatzea, "Egin nirekin ere euskaraz" kanpaina, zinUEMA zinea euskeraz, Berbalagun egitasmoa, etorkinentzako Aisa ikastaroak, erroldatu barriak euskerara erakarteko diptikoak, "Bertatik bertara" kanpaina turismoan euskerea balioan ipinteko, banketxeak euskerea sustatzeko hitzarmena, udalekuetako begiraleentzako saioak, irakasleei formakuntza eta tailerrak eta Salto udalekuetan Igorreko gazteek parte hartzeako zabalkundea.


Euskerearen inguruko idea, proposamen edota eretxiak azalduko

lekua be badago galdetegian.

Hurrengo pausuak

Gero, galdetegietako informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa aztertuko dau Ahizeko lantaldeak, eta diagnostiko txostenaren lehen zirriborroa aurkeztuko deutso talde eragileari, taldearen ekarpenak jasoteko.

Ondoren diseinu fasea izango da. Eztabaida taldeetan jasotakoak, bateratu, konpartidu eta osotuko dira igorretarrak egingo dan lanketan. Herritarrentzako deialdi irekiak izango dira, bertan egongo dira baita ordezkari politikoak, talde eragilea eta Igorreko AEK-kideak. Saio honeetan lan estrategikoaren oinarriak zehaztuko dira, eta hortik abitatuta Ahizek behin-behineko planaren zirriborroa osotuko dau. Ostean, talde eragileari aurkeztu eta aste biko tartea zabalduko da, gura dauanak ekarpenak egin ahal izateko.



ZEBERIO

Zeberioko gazteek izena emon leikie martian sagardotegira joateko

Erredakzioa

Zeberioko Gazte Elkarteak, martiaren 16rako, Sarasola sagardotegira txangoa antolatu dau. Izena, zezeilaren 9ra arte emon daiteke, 667 841 838 telefonora idatzi eta datuak emonda; izen-abizenak eta telefonoa, hain zuzen be.

Txangoaren prezioa 66 eurokoa da eta ordainketea, zezeilaren 2an edo 9an egin behar da, Futbolin Txapelketan. Izan be, Gazte Elkarteak Futbolin Txapelketa bat be



antolatu dau. Txapelketako lehenengo partiduak urtailaren 26an jokatu ziran eta hilaren 2an eta 9an egongo dira beste saio bi. Izena emonda daukienek eta aurreko saioan ordaindu ez dabenek, egun horreetan ordaindu behar dabe.

DIMA

Dima barrero sartu da Udalbiltzan

Urtilaren 20an barrero sartu zan Dima Udalbiltzan. Udalbiltzak 25 urte bete ebazan eta Bergaran egin zan Batzar Orokorra. Dimagaz batera, Izurtza, Markina-Xemein, Plentzia, Berrobi, Mendaro eta Larraun be batu ziran partzuergora. Oin, 84 udalek osotuten dabe Udalbiltza.

Erredakzioa

Dima, ilusinoz bueltetan dala Udalbiltzara esan eban Jose Mari Atutxa alkateak. "Dimatik be bagatoz barrero bueltan. Ilusinoz eta gogotsu, nazino erakuntzan gure aletxo ipinteko prest". Eta amestutako Euskal Herria egiteko Udalbiltzara batzea garrantziakotzat jo eban. "Hemengo besteak batera, alkarlanean, sareak osotu gura doguz. Alkarren esperientziatik ikasita asko erraztuten diralako bideak, batez be, batzuek ipinten deuskuezan oztopoen aurrean" esan eban. Dima lehenengo 1999an sartu zan Udalbiltzan eta 2004an urten; gero barrero sartu zan 2013an eta 2019an urten zan.

Udalbiltza

Udalbiltza izaera juridiko publikoa

daukan euskal erakunde nazionala da. Partzuergoa da, eta udalek eta lukro asmorik bako alkarte pribaduek osotu daikie. Udalbiltzak estadu biek ezarritako muga gainditzeko borondatea dauka, nazinoarteko itun eta Europar legedian oinarrituta. Arratia, Ubide eta Zeberiotik Artea eta Dima dagoz Udalbiltzan.

Euskal Herriko Udal eta Udal Hautetsien Biltzarra 1999an sortu

eben, 1.778 hautetsien aurrean. Euskal Herria batzean eban lehen instituzinoa da. Euskal Herria nazino bat dala aldarrikatutea eta haren egitura politikoa eregitzea, nazino erakuntza bultzatutea, herrialde guztietako udallerrien arteko hartu-emonak eregiten lagundutea eta nazinoartean adierazotea Euskal Herria nazino berezkoa dala eta hala izan gura dauala dira erakundearen printzipioak.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

59 kilometro salgai Korrikan lekukoa eroateko

Zezeilaren 1etik dagoz salgai Korrikako kilometroak, alkarte, enpresa, talde, kuadrilla edo norbanakoek jagokien kilometroan, lekukoa eroan dagien.



Erredakzioa

Arratiako kilometroak AEK-ko Igorreko Kubulu Euskaltegian telefonoz zein bertara joanda edo arratia@korrika.eus helbidera idatzita erosi daitekez. Zeberioako, Basauriko Bolintxu AEK-n. Prezioa igazko bera da. Kilometro baktaxaren prezioa 450 eurokoa da eta

kilometro osoa zein erdia -250 euro-, erosteko aukerea dago.

Zeberio eta Arratian 59 kilometro egingo ditu Korrikak, 2.099tik 2.157ra, martiaren 22an. Korrika hasten danerako, martiaren 14an, Arratiako ibilbidea zarratuta euki gura dabela azaldu deutso BEGITURI Lurdes Ortega AEK-koak. Ibilbidearen arabera apur bat aldatuten dan

arren, kilometroak erosten lagunduten daben gehienek errepetidu egiten dabe Korrikaren edizino guzti edo ia guztietan; "esango neuke %85 fijoak dirala" dino Ortegak. Hata guzti be "beti dago baten bat aurreko edizinoan erosi eta hurrengo urtekoan, dana dalakoagaitik, ezin dauana erosi. Askotan egoten dira batzuk kanpotik etorten diranak. Inoz Madrileko diasporak erosi dau hemen baina hurrengo edizinoan, adibidez, Gasteizen amaitu zanean, eurek gura eben hurrengo egunean Gasteizen egon ahal izatea eta orduan begiratu ebena izan zan non erosi amaieran egoteko. Pentsetan dot aurtan horreek Baiona inguruan erosiko dabela".

Herritik ez danean pasetan

Herritik pasau ala ez badauka eragina horretan, nahiz eta "danentzat lekua egiten" saiatzen diran AEK-n. Aurtan ez da pasauko ez Bedia, ez Ubide, ez Zeanuritik. "Bediatik askotan ez da pasetan eta normalean, eurek borondate ona erakusten dabe, guk ahal dogun lekuan kokatzeko. Ubidetik pasetan ez danean, Legutio inguruan hartzean dabe; normalean, Legutiora joaten dira. Eta Zeanuritik, ni hemen nagoanetik, beste baten baino ez da gertatu Zeanuritik ez pasetea. Saiatuko gara Zeanurikoei herritik ahalik eta hurbilen emoten".

LEMOAKO BISTIBIETA ZABORTEGIA

Prestige hondamendian euskal kostaldean bildutako galipota Bistibieta zabortegian egon daiteke

Urtilaren 12an, Elkarrekin-Podemos-eko Miren Gorrotxategik, zera galdetu eutsan Eusko Jaurlaritzeari: "zein zabortegian itxi ziran Ihoberen txostenean aitutzen diran eta Petronorrera joan ez ziran fuel-olio hondakinen %37 horreek? Eta Bistibietakoa balitz, baeukan baimenik fuel-olio hondakinentzako?". Argiako Urko Apaolaza Avilak, *Lemoako Bistibieta zabortegian egon liteke Prestige hondamendian euskal kostaldean bildutako galipotaren %37 izeneko erreportajearen*, urtilaren 18an argitaratutakoan, susmo horreen nondik norako guztiak jasoten ditu. Artikulu horretako informazioa dakargu orriotara.

Erredakzioa

Artikulu osoa <https://www.argaia.eus/albisteak/lemoako-bistibieta-zabortegian-egon-liteke-prestige-ren-hondamendian-bildutako-galipotaren-37> estekan irakurri daiteke.

Prestige petroliontzia 2002ko zementian hondoratu zuen Galiziako kostaldean 77.000 tona petrolio eroizanean. Euskal arrantzaleek 21.000 tona fuel-olio edo txapapote bildu ebezan itsasoan. Hurrengo hilebeteetan mareak galipot tona asko eroan ebazan Bizkaiko eta Gipuzkoako hondartzetara eta beste 333 tona galipot bildu ziran lurrean, aitaturako erreportajearen datuen arabera. "Eusko Jaurlaritzek hondakinak tratetako behin-behineko planta bat sortu eban Bilboko portuan, Punta Sollana kaian, eta berreskuratutako fuel-olioaren zati handi bat Petronorrera eroan eban ondoren, konpainia pribaduak aprobetxatu eian. Baina gainerako galipotagaz zer egin zan oindino ez da guztiz argitu" azalduten dau Apaolazak. Kostaldean jaso eta Petronorren tratetako eroan ez zan galipota, Lemoako Bistibieta zabortegian egon daitekela be azalduten dau. Izan be, Eusko Jaurlaritzek, ukatu arren, emon dituan datu kontraesankorrek susmoak handitu dabazala dino.

Aspaldiko susmoak eta Elkarrekin-Podemosen galderak

Galipota Bistibietara eroan izanaren susmorako errazoiak be emoten ditu Apaolazak. Aspalditik datoz Bistibieta zabortegiaren inguruan bizi diranen eta ekologisten susmoak, sortuten dan sufre



eta hidrokarburoen hantsa dala-ta. 2017an, aldizkari batek inoan "ebidentziak" dagozala Prestige-ren hondamendian jasotako hondakinen zati bat bertan biltegitatu zala, "ezelango tratamendu berezi barik, eta oindino gehiago, hainbat urtetan, sortzean ziran libixibaduak barriro ponpatzen zirala biltegiaren gailkaldara".

2023ko urri bigarrean, Elkarrekin-Podemos taldeko Miren Gorrotxategik galdetu eutsan Jaurlaritzeari, ea Prestige hondamendiko galipota Bistibietan dagoan. Arantxa Tapiak erantzun eutsan ez dirala gaintzen "hidrokarburoen parametroak" eta ez daukala zentzurik "existiduten ez dan zeozarren inguruko presentzia ikertzea". Hantsa gitxitzeko neurriak hartu dirala.

Petronorrera bideratu ez zan za-

tia, galipotagaz zikindutako garbiketako erroa eta materiala zala be argitu eban sailburuak, eta Saber enpresa espezializaduak "inertizau" ebazala material horreek, ondoren hondakin ez-arriskutsu lege, zabortegian isurtzeko. Izan be, Bistibieta zabortegian, hondakin ez arriskutsu inertizauak biltegitatu daitezke. Baina Ingurumen Sailak ez dauka inertizazio prozesu horren kontraturik, ez zalako kontratazino arrunta izan, "kontuan izanik larrialdi egoera bat zala". Materialak zabortegiaren zein lekutan dagozan be ez ei dakie Jaurlaritzakoek, hori "titularren esplotazino planaren parte" dalako.

Argiako artikuluak be jakitera emoten dau Jaurlaritzatik Elkarrekin-Podemoseri bialdutako dokumentazioaren artean, Ihober 2016an Prestige-ren hondamen-

diaren inguruan argitaraturiko txostena dagoala. Txosten horretan azaltzen da, 2002an itsasoan 21.100 tona fuel jaso ebezala arrantzaleek eta hondartzetan 3.047 tona galipot bildu zirala. Txostenak be badino, Bilboko portuko tratamendu plantan galipotagaz zikindutako itsasoko hondakin solidoak, plastikoak, algak eta landare adarrak bereizi zirala eta bildutako guztiaren %37 suposatzen ebala horrek. "Kudeatzaile baimendu bateri bialtzen jakon. Harek, egonkortze eta solidotze-prozesu baten ondoren, mota horretako hondakineterako zabortegi baimendu baten ixten eban". Zein dan zabortegi hori ez da esaten.

Ea zabortegi hori Bistibieta izan daiteken argitzeko asmoz, aurkeztu eban galdera sorta Elkarrekin-Podemosen Gorrotxategik

urtilaren 12an.

Bistibieta zabortegia

Bistibietako zabortegia Lemoako lurretan egon arren, hatsak eta zabortegiak dakarzan kalteak Bedia, Zornotza eta Galdakaoko biztanleei eragiten deutsee Lemoakoei baino gehiago. 2002an Bistibietako zabortegia Cespa Content enpresaren eta 2008an FCC Ambito enpresaren pasau zan.

Zaldibarko hondamendiaren ondorioz Eusko Jaurlaritzek handitutako asmoa daukan zabortegietako bat Lemoakoa da, eta fibrozementu edo amianto hondakinak jasoteko baimena ei daukan EAEko bakarra be bai. Horretarako, FCCk Ingurumen Baimen Bateratua moldatzeko eskatu daua, eta tramitazino horretan dabilzala be gogora arazo dau Argiako artikuluak.

Non dagoz Pertronorrera eroan ez ebezan hondakinak?

Lemoako Aurreka Talde Ekologista eragile aktiboa izan da eta da Prestigeren hondamendiko galipota non dagoan argitzeko bilaketan. Ingurumen Sailburuordetzari eta Ingurumen Kalitate Zuzendaritzari informazioa eskatu eutsan, Lemoako Bistibieta zabortegean zenbat txapapote eta zelan gordetzen dan argitzeko.

Erredakzioa

Alkartea 2008an sortu eban Azurreka auzuneko talde txiki batek ingurumenagazko sensibilitate egoalako. Gaur egun, esparru nazionalagoa dauka eta beste talde batzuek alkarlana egiten dau. Bertan parte hartzeako modua aldatu egin da, oingo sasoiara egokitzeke. Alkartea gizarte zibilera eta sare sozialetara zabaldu da eta bere komunitatea handitu egin da. Momentu honetan 100 zuzeneko kolaboratzaile baino gehiago ditu.

Unai Ortuzar, Azurrekako kide sortzaileetakoak erantzun ditu BEGITUREN galderak.

Prestige-k botatako galipota Bistibieta zabortegean egon leitekela eretxita salaketea ipini eban Azurreka taldeak?

Unai Ortuzar: Oindino ez dogu inoren kontrako kereilarik ipini, egin doguna da Ingurumen Sailburuordetzari eta Ingurumen Kalitate Zuzendaritzari beharrezko informazioa eskatu, Lemoako Bistibieta zabortegean zenbat txapapote eta zelan gordetzen dan argitzeko. Administrazioaren erantzuna, anbigua izateaz gainera, kezagarria be izan da: Prestige hondamendia gertatu zanetik hainbeste urte igaro diranez, ez daukiela informazio osoa. Zenbat, zelan, eta non dagoan ez dakiela esan deuskue.

Gobernutik ez dabe ezer esaten, eta hondakinak kudeatu ebezan enpresek be ez dabe ezer esaten. Egungo Eusko Jaurlaritzak, albisteei eta parlamentuko

galderei erantzun deusenean, kontraesanak izan ditu eta ingurumen-erantzukizun posiblei buruzko zalantzak ereiten ditu.

IHOBEk (Jaurlaritzako Ingurumen Agentziak) 2016an argitaratutako txostena bialdu euskun eta han kostaldean bildutako hondakinen %37 Petronorrek ezin izan ebala balorizau eta zabortege batera bialdu zala esaten da.

Jaurlaritzaren erantzun argirik barik, zer egingo dozue oin?

Gaur egun zabortegearen jaubea dan enpreari, FCC Ambitori, informazioa eskatu deusagu eta ez dogu erantzunik jaso. Gainera, azterketa topografiko bat egiteko aukera emoteke eskatu deusagu (Georadar topografikoa), egungo egoera aztertuteke. Eta ez dogu erantzunik lortu. FCC Ambitor bere webgunean daukan Etika kanalera be jo dogu eta inork ez deusku erantzuten. Gure ustez, enpresek bere interesak defendiduten ditu, baina gizarte zibilaren interesak urratzen ditu.

Eusko Jaurlaritzak zabortegea handitzeko asmoa dauka. Zer pentsetan dozue horretaz?

Ingurumen Lege barriak, zabortege milaka tona gehiago hartzeako ahalbidetzen dau, baina lege horrek iraganean egindako delituak eta irregulartasunak epaitzen ditu eta horixe da Lemoako eta Galdakaoko Udalari proposatu deusaguna.

Eusko Jaurlaritzegaz eta Udalgaz izandako bileren ostean geure buruari galdetu geuntsan ea nor defendiduten daben eta ea ez ete



Bistibietako sarrerea.

daben ezer egingo. Zabortegeak hainbeste arazo sortzearen egia eta zergatia (usainak, ur zikinak, amonioa, eta abar) jakiten saiatzen gara.

Zenbat txapapote eta zein egoeratan gordetzen dan baino

ez dogu galdetzen eta inork ez ei daki ezer. Ez dogu sinisten.

Jenteak honen gaineko bere eretxia bialdu ahal dau azurreka2022@gmail.com helbidera edo alkartearen kanala bisitau YouTube-n, [@lemoainfo-n](https://www.instagram.com/lemoainfo-n).

"IHOBEk, 2016an

argitaratutako txostena

bialdu euskun eta han

kostaldean bildutako

hondakinen %37

Petronorrek ezin izan

ebala balorizau eta

zabortege batera bialdu

zala esaten da"



Euskal Herriko kosta garbitzen.

Argazkia: Baleike.

ANDRAMARI

TXIKIAK HANDI EGITEKO HEZKUNTZA OSOA

Otik 18 urtera arte

2024-2025 MATRIKULAZIOA: OTSAILAREN 7tik 23ra arte

BISITA PERTSONALIZATUAK eta informazio gehiago

EZAGUTU IKASOLA!

946732950 | zornotza@kastola.eus | www.andramari/zornotzakoikastola.eus

ikastola



ARATUSTEAK ARTEAN

Zezeilak 9, barikua
16:30ean, Guraso alkarteak antolatuta txokolatea eta musikea plazan; 19:00etan, kalejire, Kokomarroak kalerik kale Kultur Etxetik urtenda.



ZIKLO-KROSA

Igorreko Manu Quintanillak irabazi dau Euskadiko Txirrindularitza Federazioak antolatutako Ziklo-kros Txapelketea

Manu Quintanilla Euskal Challenge-aren irabazlea izan da Master 50eko kategorian.

Erredakzioa

Euskal Herriko 11 lasterketak osotutako txapelketako sailkapenean, onena izan da igorreztarra bere kategorian.

Quintanillak sano denporaldi ona egin dau: hamazazpi lasterketa jokatu ditu Euskadi, Asturias, Galizia, Zaragoza, Valentzia eta Madrilen eta euretako 5 irabazi ditu, 3 lasterketatan bigarren egin dau eta beste bitan, hirugarren. Ondorioz, estatu mailako rankingean seigarrena izan da. Horren ondo amaitu arren, ha-



sikeran momentu gatak pasau ebazan Igorrekoak. "Momentu gatak egon dira, jausialdi eta guzti, denporaldiaren hasieran Gijonen. Eta denporatxo behar izan neban osatuteko. Zemendi eta abendu bitartean gora egin neban, oso ondo amaituteko, nahiz eta Espainiako Txapelketan Amurrión, buelta bi falta ziranean eta bigarren noianean gurgila zulatu jatan. Bederatzigarren egin neban. Euskadiko Txapelketan, Abadiñon barriz, bigarren" azaldu deutso BEGITURI txirrindulariak.

PELOTEA

Zeberioako Mandoia klubeko Zuhaitz Etxebarria Bizkaiko txapeldun

Erredakzioa

Bizkaiko Kluben Arteko Eskuz Banakako Txapelketan Zeberioako

Mandoia klubeko Zuhaitz Etxebarria txapeldun izan zan bere mailan, Gazteak 3. maila, urtailaren 12an, Galdakaoko Adiskide

klubeko Aritz Ojedari finala irabazi ostean.

Bizkaiko Kluben Arteko Txapelketako eskuz banakako hiru final jokatu ziran Zeanurín egun horretan, El Corte Inglés Sari Nagusiaren lehian. Lehenengo partiduan, Kadeteak 2.mailakoan, ez zan Arratia, Ubide edo Zeberioako ordezkariarik izan; Durango eta Leioako klubetako pelotariak jokatu eben final hori. Hurrengo bietan bai, ostera. Bigarren partidua, Zeberiokoa eta Galdakaokoaren artekoa izan zan. Hirugarren partiduan, Nagusiak 2. mailako finalean, Lemoa klubeko Gorka Lazkano saiatu zan txapela Arratiara ekarten, baina lurretako Olaburu Pelota Elkarteko Koldo Bikandi nagusitu jakon eta Lemoakoa txapeldunorde izan zan.



FUTBOLA

Ez eben garaipenik lortu Arratiako futbol taldeek atzen jardunaldian

Andrazkoen Arratia Ak Salamanca FFren kontra, eta gizonezkoen Ak Dinamo San Juanen kontra bardindu egin ebezan euren partiduak etxean. Andrazkoen Arratia B taldeak galdu egin eban Basauriko Kimuak B liderraren kontra etxetik kanpo. Gizonezkoen Arratia Bk Ermuaren kontra etxetik kanpo eta Lemoako Harrobik Begoña A taldearen kontra Arlonagusian galdu egin ebezan euren partiduak.



Gizonezkoen Arratia A eta Dinamo San Juanen arteko partidua.

Erredakzioa

Andrazkoen Arratia A taldeak urtailaren 28an jokatu eban Salamanca FF taldearen kontra eta bina bardindu eban. 2024an galtzean dauzan lehen puntu biak izan ziran domekakoak. Aurreko partidua 0-5 irabazi eban Santanderren Monte Soccer taldearen kontra. Hamazazpi jardunaldiren ostean 28 puntu ditu Arratiak eta zazpigarren postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Oartzun taldearen kontra zezeilaren 3an, arrastiko 15:30ean.

Andrazkoen Arratia B taldeak urtailaren 28an jokatu eban etxetik kanpo Basauriko Kimuak B talde liderraren kontra eta 2-1 galdu eban. Arratia Bk atzen 6 partiduak jarraian irabazita eroiazan. Aurreko partidua 1-3 irabazi eban Indartsu taldearen kontra etxetik kanpo. 16 jardunaldiren ostean 30 puntu ditu Igorreko taldeak eta laugarren postuan dago. Datorren partidua etxean jokatu dau Bizkerre C taldearen kontra zezeilaren 3an, arrastiko 15:30ean.

Gizonezkoak

Lemoako Harrobi taldeak urtailaren 27an jokatu eban Arlonagusian Begoña A taldearen kontra eta 1-6 galdu eban. 18 jardunaldiren ostean seigarren postuan

dago 28 puntugaz. Aurreko partidua bana bardindu eban etxean La Merced A taldearen kontra. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Orozkon sailkapeneko bigarren postuan dagoan Atxulaur A taldearen kontra zezeilaren 4an, arrastiko 16:00etan.

Gizonezkoen Arratia A taldeak urtailaren 27an jokatu eban Urbietan Dinamo San Juan A taldearen kontra eta husna bardindu eban. Sei jardunaldi daroaz A taldeak partidurik irabazi barik. Aurreko partidua 0-1 galdu eban etxean Uritarra A taldearen kontra. 18 jardunaldiren ostean 22 puntu ditu Arratia Ak eta zortzigarren dago sailkapenean. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau zezeilaren 3an Zamudio taldearen kontra, arrastiko 17:00etan.

Gizonezkoen Arratia B taldeak be urtailaren 27an jokatu eban etxetik kanpo Ermua A taldearen kontra eta 2-0 galdu eban. Aurreko partidua be galdu egin eban Arratia Bk etxetik kanpo 3-0 Montefuerte A taldearen kontra. 18 jardunaldiren ostean hamabigarren postuan dago 21 puntugaz. Datorren partidua etxean jokatu dau Arratia Bk Usansoloko Umore Ona A taldearen kontra zezeilaren 4an, eguerdiko 12:30ean.

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Bilatu dago jabetza Bilatu dago proiektuak

- Salmenen zein aldatu
- Luzak (erretiratu, landat, basak...)
- Etxebizirik (jauki, baserri, etxak...)
- Garaioak
- Lokal komertzialak
- Pabiloiak...
- Balonazkoak

Irakin berak erakitzeko instalazioak

AKTIBO-proiektuak

-Borne diseinua

-CEE eta IIE-ak

-Hirigintza ahoikularitza

-Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Lanabidea: Agirre 25, 48140 - IGORRE
Telefonoa: 94 673 92 93 - 94 673 92 82
Faxa: 94 673 92 93 - 94 673 92 82
E-maila: arratia@arratia.com

Kili-Kili
Ampo eta Puntututara

Lanabidea: Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 43 81

Olaetxe
OPTICA SINTILUA

Graduazinoak

Ikusmen terapia

Ikusmen gubitua

Begiko tentsioa

Lentillen adaptazioa

Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ASESORIA
Gorbeialde

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza

Askatasun 26, 1B - 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

PELOTEA

VI. Bizkaiko Txapelketan, txapelburorde izan zan Aldai eta Ruiz de Infantek laugarren postuan amaitu eban

Erredakzioa

VI. Bizkaiko Txapelketako finala eta hirugarren eta laugarren postuak ebazteko partiduak jokatu ziran urtailaren 21ean Bilboko Bizkaia pelotalekuan. Partidu bietan egon zan Arratiako edo bertako klubean bateko pelotaririk eta partidu onak jokatu arren, aurkariak nagusitu jakiezan bie.

Lehenengotik, hirugarren eta laugarren postua ebazteko partidua jokatu zan. Dimako Txumuluxeta Klubeko Ainhoa Ruiz de Infantek eta Olatz Ruiz de Laramendik, Olatz Arrizabalagak eta Nora Mendizabalek osotutako bikoa izan eban aurkari. Arrizabalaga eta Mendizabal izan ziran irabazleak.

Final estua

Finalean be, Leire Garai eta Enara Gaminde nagusitu jakien Amaia Aldai eta Andrea Capellaneri 22-19. Urdinak, Garai eta Gaminde, nagusi izan ziran lehenengo erdian, baina bigarren erdian, Amaia Aldai saiatu zan partiduari buelta emoten eta tantu bakarrera hurreratzea lortu eban (19-20). Ha-ta guzti be, ez zan nahikoa izan, partidua irabazteko.

Aldai hasi da Binakako Master Laboral Kutxa Txapelketan jokatzeko

Pelotari dimoztarrak urtailaren 28an jokatu eban txapelketako lehen partidua Irati Zabalagaz batera Olatz Beitia eta Nora Mendizabalen kontra Larrabetzun. Estu bada be 22-19 irabazi eban pelotari dimoztarrak.



MENDIA

Urtailaren 19an heldu zan Alex Txikon etxera Annapurnako neguko saiakerearen ostean

Erredakzioa

Aurreikusitakoa baino ordu eta erdi beranduago, Alex Txikon eta gainerako taldekideak ailegau ziran Loiura Istanbuletik urtailaren 19an, Katmandun geldialdia egin ondoren. Holan amaitu zan Anna-

purnako neguko espedizioa.

Loiura ailegau zanean, Txikonek eskerrak emon eutsezan bertan bildutako komunikabideei, babesleei, kolaboratzaileei eta sare sozialen bidez jarraitzen deusant jente guztiari. "Oso pozik gagoz bueltan gagozalako. Guztiok kal-

terik barik. Esan dodan legez, saiatzen ez jarraitzea ebatzi gatxa izan zan, baina hori zan egokiena, mendiak esaten euskulako: ho-

rraino. Atsedean hartzea, indarrak berreskuratzea eta lanean gogor jarraitzea tokatzen da" adierazo eban alpinistek.



Alex Txikon eta Eneko Garamendi lemoztarrak.

bideON
ARRATIAN



hurreratu egingo zaitu, zatoz

Emon izena

Autoaren orde, garraio seguru eta jasangarria erabili zeuk gura dozunean.

- Unibersidadean ikasten badozu, edo
- 65 urte baino gehiago badaukazuz, eta
- Arratian bizi bazara

Gogarako garraio jasangarrirako **bideON ARRATIAN** zerbitzua zuretzat da.

Zure etxeko atetik eskualdeko uriguneetara hurbilduko zaitugu edo unibersidadera eroango zaituen garraio publiko hurbilenera hurreratuko deutsugu.

Zerbitzua aurrez aurre eskatu ahal izango dozu bulego honetan, baita **bideON aplikazioaren** bidez edo telefono honetara deituta be:

www.bideonarratian.eus

94 471 46 24

Lehendakari Agirre 11 - 48140 Igorre (Bizkaia)



ZINEKLUBA

Bikote baten hartu-emonen gaineko pelikulea dakar Igorreko Zineklubak

Erredakzioa

Zezeilaren 8an, 20:00etan, Nuri Bilge Ceylan zuzendari turkiarraren *Los climas* 2006ko pelikulea dakar Igorreko Zineklubak Lasarte Aretora.

Filma hiru urtarotan garatzen da eta urtarook bikotearen hartu-emonak irudikatzen dabez. "Isa eta Bahar lortuko ez daben zoriontasun bila dagozan persona bakarti eta barnerakoi bi

dira. Udako oporretan, bikote hartu-emonak komunikazio arazo larriak erakusten ditu, eta Isak antxinako monumentuen argazkiak ateraten ditu, amaitu bako tesi baterako. Motor baten urira itzultzen diranean, bikoteak istripu bat dauka, baina ez larria. Istoria hiru urte sasotan garatzen da; uda bero baten, udagoien euritsu baten eta edur-negu baten" azaltzen dau sinopsiak.



LAGUNTZAK

Lemoako alkarteek dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago



Erredakzioa

Lemoako udalerrian kultura, kirol, alkartasun eta ingurumen jarduerak egiten dituen erakunde eta alkarteek dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago. Udalak 100.000 euro bideratu ditu dirulaguntzetara. Esther Iturrioz Lemoako alkatearen arabera, "herriko alkarteek lan garrantzitsua egiten dabe, kohesino eragileak dira eta euren lanagaz jarduera aberasgarriak eskaintzen ditue guztionez".

Dirulaguntzen deialdia, urtailaren 24an argitaratu zan Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta interesa daukien alkarteek, ordutik hogei eguneko epea daukie eskabideak aurkezteko. Proiektua eta eskabidea euskeraz aurkeztu beharko dira, edo euskeraz eta gaztelaniaz, eta, dirulaguntzak esleitzeko, hainbat erispide hartuko dira kontuan, besteak beste, euskerearen erabilera eta jarduerak gizonen eta andren arteko berdintasunaren sustapenean daukan eragina.

ALKARRIZKETEA

Bere lehenengo diskoa prestatzen dabil Viewer taldea

Uckaia taldearen ondorengo, honek bere ibilbidea amaitu baina taldeko kide batzuek jotzen jarraitu gura ebelako sortu zan oin dala urte bi Viewer taldea.

Erredakzioa

Areartzako Ager Bagarranek (bateria) eta Aitor Ipiñak (bajua), Leioako Edu Fernandezek (gitarra) eta Sopelako Mikel Alberdik (ahotsa) osotuten dabe taldea. Euren lehenengo diskoa grabetan dabiz, aprilean kalean egotea espero dabena.

Ager Barraganek diskoko letren egile eta bateria-joleak erantzun ditu galderok.

Uckaiak baeukan ibilbide bat eginda, Europatik bira bat egiteko zanean etorri ziran pandemiako debekuak, kulturaren eragin handia euki ebanak eta bertan behera geratu zan dana, ezta?

Uckaiagaz nahiko fuerte hasi ginan, 2018an eta 2019an bira fuerte bi egin genduzan. 2018koa izan zan estatu mailakoa: Albacete, A Coruña, Madril, Valentzia... Eta 2019an egin genduan beste bira handi bat Euskal Herritik. Ondoren hasi ginan Europako bira egiteko lehenengo fetxak ipinten, baina etorri ziran pandemia sasoiko debekuak eta dana pikutara joan zan. Pandemiaren ostean ezin izan genduan ha barriro martxan ipini, bakotzak bere bidea hartu ebalako. Uckaiaren ibilbidea itxi eta, segidu gura dauanak segiduteko beste proiektu bategaz hasi ginan. Hori da Viewer.

Estilo aldetik, Viewer-ek eta Uckaiak musika estilo bera jotzen dabe?

Bai. Musika aldetik estilo bera da, metal hardcore, baina Uckaiak eukiten ebazan zati melodikoagoak-edo, eta Viewer da apur bat gehiago... stoner metala. Ez dauka hainbeste melodiarik. Viewer gordinagoa da.

Uckaiak hainbat disko atera ebazan.

Bai. Uckaiagaz, 2017an atera genduan gure lehenengo EPa *Zer* izenekoa, eta gero apur bat berregituratu genduan taldea eta 2018an, atera genduan lehenengo disko luzea *My Mind, My Universe*. 2019an, beste EP bat atera genduan, hiru kantagaz, *Introspection* izenekoa. Atzenengo hori aurkezten egin genduan lehen aitatu dodan Euskal Herriko bira handia.

Gero hasi ginan prestatzen beste disko bat, landuagoa, baina hori be pikutara joan zan pandemia

sasoiko neurrikaitik.

Viewer-ek ze ibilbide egin dau urte bi honetan?

Viewer 2022ko urtailean sortu zan. Justu Uckaia itxi eta egun berean. Orduan esan genduan, Uckaia oin amaitzen da baina hasten da eta pa barri bat, talde barri bat.

Urtebete egon ginan taldea apur bat egituratzen, baita geure buruak be. Pandemiaren ostean asko kostau jakun barriro karrilean sartzea. Urtebete inguru gauzak prestatzen ibili ginan eta oin sei kanta grabau doguz, gure lehenengo diskoa egiteko.

Oindino ez dogu zuzenkorik jo, ze pentsetan dogu hobeto prestatu behar dogula. Batzuetan, hasten danean talde bat, gauzak oso arin eta "txarto" egiten dira. Guk ez genduan gura gauzak arin eta txarto egin; pazientziagaz hartu eta gauzak ondo egin gura doguz. Egingo dogu diskoa eta zuzeneko super ondo prestatuko dogu. Zuzenean jotzen hasten garanean, beste mundu bat izango da.

Azaldu apur bat zelangoa izango dan grabetan zabizien diskoa.

Ez daukagu argi *Nictofilia* deituko ete dan ala ez, baina iluntasunaz disfutretan daben personakaz zirikusia dauka. Disko kontzeptuala da. Letrak neuk idazten dodaz eta niri gustetan jata diskoetan kontzeptua sartutea. *Nictofilia* da bakotzak bere buruagaz daukan burrukea, hasikeratik amaierara arte. Hasikerea da personea depresinoak jo edo bere buruaren kontra egiten hasten danean. Holango prozesu bat kontetan da sei kantu honeen bitartez.

Diskoa osorik dago daborduko, baina produktoreagaz gauzak amaituten gabiz. Komunikazioaren aldetik be landu egin behar

dira hainbat gauza: diskoaren azala, bideoklip batzuk...

Diskoak kontetan dauan prozesu hori zelan amaitzen da? Ze aukera bi dagoz: putzutik urtetea edo suizidioa.

Diskoa hasten da putzuan sartzean zaranean edo konturatuten zaranean putzu baten zagozala, eta diskoa aurrera joan ahala, zelan emoten deusazun arpegia horri kontetan da. Atzenengo kantuan, putzutik urten edo sikeran, ahalegina egiten dozu urtetako, konziente izanda bizitakoaz.

Diskoko kanta bat be entzun daiteke Youtuben, *What We Can't See With Our Eyes* izenekoa.

Ingelese da diskoa?

Bai. Musika honen publikoa batez be erdalduna da. Ez bakarrik gazte-leraduna; musika hau asko konsumiduten da ingelesez egiten daben lekuetan. Kanta baten kolaborazio bat dago eta hori kolaborazioori euskeraz da eta kantareen izena, *Min*. Euskerara jo gura dogu baina gure musikeak daukan publikoa erdalduna dana lez, ba esan dogu, lehenengoa ingelesez egingo dogu leku bat izateko eta gero gure lekua daukagunean, hasiko gara gehiago esperimendetan.

Noz egongo da kalean diskoa?

Oin gabiz topera beharrean produktoreagaz. Kanta bakotzak dauka bere kutsua, bere berezitasunak... eta gabiz, kantaz kanta, dana biribilduten. Dana daukagunean aterako da diskoa. Gitxi gorabehera aprilean izango dala uste dot. Baina gero beti luzatuten dira kontuak eta ez dakit. Aurten urtego dala, fijo!

Zuzenekoak jotzen be hasiko zarie?

Bai. Gure idea da eukitea diskoa eta diskoa daukagunean hastea jotzen ahalik eta gehien.



Aitor Ipiña, Edu Fernandez, Mikel Alberdi eta Ager Barragan.

AREATZA MUSIK & BEER

Diamond Dogs, The BluesBones eta Noa & The Hell Drinkers taldeek Musik and Beer jaialdian joko dabe

Areatza Musik and Beer 2024 jaialdiko datak eta bertan joko daben hiru banda emon ditu jakitera antolakuntzeak. Maiatzaren 31 eta bagilaren 1ean, bariku-zapatuan izango da aurtengo edizinoa.

Erredakzioa

Suediako Diamond Dogs, Belgikako The BluesBones eta Euskal Herriko Noa & The Hell Drinkers taldeak dira etortekoak, beste batzuen artean.

Barikuan joko dabe The BluesBones belgiarrek. Taldea 2011n sortu zan eta blues-rock estiloko musikea egiten dau. Taldea ezaguna da energia handiko bere zuzenekoakaitik eta Europako eszena-

leku eta jaialdi ugaritan lortu dau publiko zein kritikearen errekonozimientua. Hainbat album kaleratu ditue, *Voodoo Guitar* (2012), *Chasing Shadows* (2015), *Double Live* (2016), *Saved by the Blues* (2018), *Live on Stage* (2020) eta *Unchained* (2023) esate baterako. Iberiar peninsulan jotzen daben lehen aldia izango da.

Rock munduan euren 30 urteak ospatuteko, bira bat egingo dabe udabarrian Diamond Dogs talde-

koek Espainian zehar eta Euskal Herrian Areatzan joko dabe. Bagilaren 1ean egongo dira eta *Too Much Is Always Better... Than Not Enough* euren disko ezaguneneko kantu guztiak zuzenean entzuteko aukerea egongo da. Taldea 1990eko hamarkadan sortu zan eta, besteak beste, dozena bat disko luze eta hiru EP ditu kalean; *Too Much Is Always Better than Not Enough* (2002), *Recall Rock 'N' Roll And The Magic Soul* (2019) edo *Slap Bang Blue Rendezvous* (2022) tartean.

Noa & The Hell Drinkers, Europako onena

Noa & The Hell Drinkers blues rockeko talde donostiarra, hogei bat talderi nagusitu jakon Europa Blues Challenge Txapelketan, 2023ko bagilean Polonian. Ainhoa Eiguren kantariak gidatzen dauan taldea 2016an sortu zan eta hiru disko ditu kalean. Azkena, *Hell's The New Heaven* 2023an argitaratuta. Talde gipuzkoarrak barikuan eskainiko dau kontzertua.



DUNBA

Areatzako historia

Areatzako eskolako 3. zikloko ikasleak

Juan Nuñez de Lara Bizkaiko jauna zan, eta Areatza 1338an sortu eban. Villa de Haro izena ipini eutsan bere andrea eta familiaren omenez, abizena Diaz de Haro eukielako. Goiko kale eta beheko kaleak hasi zan herriaren sorrerea. Herriak eukazan kale bakarrak ziran. Herri barri honen sorrerearen helburua, Gasteizetik Kantauri itsasoko portuetara, Barazarreko mendietatik ibilbidea sendotzea zan merkatarizarako.

Merkatariei eta mesetatik etozen herritarrei herriaren alde batetik bestera Zubi Zaharra zubiak Arratia ibaia zeharkatzeko aukerea emoten eutsen. Errukiñe kalean erdi aroko etxe bat dago,

ondorengo ezaugarriakaitik dakiugu erdi arokoa dala: estua, altua eta sakona dalako.

1513an Villaron sute bat egon zan, herri guztia erre zan, etxe gutxi batzuk gelditu ziran erre barik, adibidez, gaur egungo piszinak dagozan etxea. Sutea gertatu aurretik, astero herrian azoka egoten zan, baina herria erre ostean bizibide nagusia nekazaritza izan zan, biztanleria gitxitu zan. Herritarrei sutearen barri emoteko eleizako kanpai hotsak entzuten ziran behin eta barriz. Gainera, eleizan egozan liburu eta dokumentu guztiak erre ziran, honek desagertuz. Ondoren, 1553an uholdeek barriz suntsitu eben herria. Urte batzuk geroago Areatza herria berreregi eben.

Gaur egun Areatza izenez eza-



gutzen da Villaro herria. Toki hartsua zanez, izen hau "Arenaza" gazteleratik dator. Biztanleriari jagokonez 1.247 persona bizi dira bertan.

Areatzako jaiak abuztuaren 23tik 29ra ospatzen dira. Urtero,

LEHIAKETE

Gazteentzako bideo lehiaketea ipini dau martxan Ondarea Bizkaiak

Erredakzioa

Parte hartzeako Bizkaiko ondarearen gaineko 1 eta 5 minutu bitarteko bideoak bialdu behar dira zezeilaren 18a baino lehen, karteletan dagozan QRak eskaneau edo Ondarea Bizkaiaren sare sozialetan dagozan formularioak betez.

Izena emoteko adin kategoria bi dagoz: 11 urtetik 17 urtera eta 18 urtetik aurrera. Bideo bako-

txa 2 eta 5 partaidez osotutako talde batek egin beharko dau.

Irabazleak martiaren 4an aukeratuko dira, sormenean, hezkuntza balioan eta barrikuntzan oinarrituta. Adin kategoria bakotzeko sari bat egongo da. Finalistak Young European Heritage Makers Lehiaketan parte hartzeako hautatuko dira.



TAILERRA

Emakume jakitunak tailerrera izen-emotea zabalduko da hilaren 5ean Bedian

Erredakzioa

Bediako Udalak antolatuta, Miriam Herbonen *Emakume jakitunak* tailerrera izena emon

daiteke zezeilaren 5etik 14ra liburutegian. Tailerra 18 urtetik gorako Bediako andrentzat da.

Tailerrak sei saio izango ditu zezeilaren 21etik, bagilaren 12ra; 17:00etatik 19:30erako ordutegian. "Sentimentuak, emozinoak, sentidutako sensazioak, pentsamentuak eta, batez be, gure andra gorputzetan eta buruetan zelan adierazoten diran landuko da, modu teoriko-praktiko eta bizi-penetan oinarrituta. Hori guztia hainbat jardueraren bidez: gorputz-mobimentua, idatziak, irakurketak, erlajazino eta hausnarketako jarduerak, eta taldeagaz hartu-emon atseginerako bidea emongo dauan errespetu eta konfiantza girotik" azaldu dabe Udaletik.



Askako iturria eta Parketxea, besteak beste.

Areatzako eskola erabarritua eta handitua izan da, bertako ikasleentzat txiki gelditu zalako. Antxina babes etxea zana, Bartolome Bolibar jaun aberatsak dirua emon eban hilterakoan herriarentzako lagungarri gisa. Nagusien zaintzarako eta eskola moduan erabilia izan zan Bolibarrek bere azken nahietan adierazo eban legez. Egun, eraikin hau barrituta dago eta eskolearen parte da, eta urtailaren 17an izan zan inaugurazio ofiziala; nahiz eta, ikasleak bertan abendutik egon.

AGENDEA

**ZEZEILAK 1
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoietan, 09:00etatik 21:00etara.

19:00etan, Korrika Batzordearen batzarra udaletxean.

ARRATIA

Hilaren 18ra arte, Ondarea Bizkaia Lehiaketea. Ibilbide, bide historiko zein kultural edo momumentu historikoen 1 eta 5 minutu bitarteko bideoa egin eta Ondarea Bizkaia sare sozialetan dagoan formularioaren bidez bialdu.

BEDIA

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizaua da eta liburutegian jaso behar da.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Martiaren 16an izango dan Kolazino mendi lasterketan parte hartzeako izen-emotea zabalik sportsmaniac.com helbidean martiaren 10era arte.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

18:00etatik 20:00etara, Ilgoran Jabekuntza Eskoleak antolatuta *Osasun mentala eta generoa* tailerra Esterotipak-en eskutik eskolan.

IGORRE

Astelehenetik eguenera liburutegia zabalik 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:30etik 13:30era.

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Hilaren 8ra arte, 10ean egingo dan Inauterietako bazkarirako txartelak salgai Hegazkiñan eta Gau Loran. Nagusiak 16 euro, umeak 12 euro. Menua: paellea eta postrea edo baba-jana eta postrea.

LEMOA

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik Kultur Etxean.

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

19:00etan, Santa Ageda entseguak eskolako aterpean.

UBIDE

Maiatzaren 11n izango dan Ubidestroi Trail mendi lasterketan parte hartzeako izen-emotea zabalik kronoak.com helbidean.

ZEANURI

Batxilera eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

18:00etan, Hirigintza eta Etxebizitza Batzordearen batzar irekia udaletxean.

**ZEZEILAK 2
AREATZA**

19:00etan, *Vamos a ser un poco más*

*bruja*s antzezlan Udal Aretoan.

ZEANURI

17:30ean, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Autodefentsa feminista* tailerreko saioa.

18:30ean, Korrika Batzordea udaletxeko pleno gelan.

ZEBERIO

19:30etik aurrera, Gazte Elkarreak antolatutako Futbolin Txapelketea.

Hilaren 19ra arte, Zeberioko Gazte Elkarreak antolatuta, martiaren 16ko sagardotegira urtekerarako izen-emotea, 667 841 838 telefonoan. Ordainketea, Futbolin Txapelketan.

18:00etan, Korrika Batzordearen batzarra eskola zaharrean.

**ZEZEILAK 3
AREATZA**

11:30etik 13:30era, zeramika ikastaroa. Prezioa: 40 euro. Izena emoteko deitu 615 731 182 telefonora.

LEMOA

06:30ean, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, astegoietan pasa Belaguara mendiko eskia edo raketakaz zeharkaldia. Binbaleta (1.757 m) Añamendi (2.504 m). Ostatua Belaguako aterpean.

**ZEZEILAK 4
ARANTZAZU**

09:05ean, Arratiako Korua plazan. Agate Deuna.

11:00etan, plazan batu herritik errodea egiteko; 13:00etan, kopaua Herriko Tabernan.

AREATZA

10:00etan, Lamino Kirol Klubak antolatuta, Upora (607 m) igoera eta kanporamartxo. Eleiz portaletik.

21:30ean, Arratiako Korua Gudarien Plazan. Agate Deuna.

ARTEA

09:30ean, jubiladuen alkarteak

**Confluence taldeak kontzertua emongo dau Areatzako The Quiet Corner tabernan**

Zezeilaren 3an, arrastiko 20:00etan izango da Confluence taldearen kontzertua irlandar erako The Quiet Corner tabernan. Ez da lehen aldia talde hau Areatzan dagoana, tabernan bertan baten baino gehiagotan egon da eta Areatza Musik and Beer nazinoarteko jaialdian be jo eban 2018an.

Confluence talde bilbotarra da, Irrintzi Ibarrolak (ahotsa eta gitarra akustikoa), Jorge Grosek (gitarra), Joseba Negrok (tekladuak), Pedro Larraurik (bajua) eta Iñigo Elexpuruk (bateria) osotzen dabena eta soul, blues eta country estiloko musika egiten dabe. Areatzara Irrintzi Ibarrola eta Jorge Gros etorriko dira formatu txikian. Disko bi ditu taldeak, *Black Stones* eta *Volcano*. Halanda be, disko barrirako prestatzen dabilen kanta joko dabez batez be TQCn.

antolatutako ibilbidea; 13:00etan, kanporamartxo Elexabeitin; 21:15ean, Arratiako Korua plazan.

11:00etan, Kokomarroak antolatuta, plazan alkartu eta auzoz auzo Agate Deuna kantuan. Ibilbidea: Plaza, Kalleja, Larrazabal, Esparta, Goiko, San Martin, Elexabeiti.

21:15ean, Arratiako Korua plazan. Agate Deuna.

BEDIA

10:05ean, Arratiako Korua. Agate Deuna.

Ganguren Mendi Taldeak eta Udalak antolatuta, kanporamartxo goizeko urtekera; 15:30ean, plazan alkartu auzoz auzo Agate Deunaren koplak kantetan joateko.

DIMA

09:20ean, Arratiako Korua. Agate Deuna.

Guraso alkarteak antolatuta, Santa Ageda bezperera eta kanporamartxo. 10:00etan, eskolan alkartu koplak kantetako. Ibilbidea: eskolea, Ibarra, plazea, Piedadea, Landaburu, Telleri, Bikarregi eta Oban amaitu. 13:00etan, Obako plazan kanporamartxo. Txorizoa, urdaia eta pamtexa guraso alkartearen kontura. Aukera beganoa be egongo da. Burduntzia etxetik eroan.

IGORRE

09:35ean, Arratiako Korua. Agate Deuna.

11:30ean, Guraso alkarteak eta Arantzarte jantza taldeak antolatuta, Kultur Etxean batu herrian zehar Agate Deunaren koplak kantetako.

17:00etan, zinea, *El fantasma de Canterville*; 19:30ean, *Oppenheimer* Lasarte Aretoan.

LEMOA

09:50ean Arratiako Korua Plaza Gorrian. Agate Deuna; 17:30ean, udaletxeko plazan batu, herritik koplak kantetan joateko.

UBIDE

16:00etan, plazan batu Agate Deunaren koplak kantetako herritik.

ZEANURI

08:45ean, Arratiako Korua. Agate Deuna.

ZEBERIO

Austarri Mendi Klubak antolatuta, kanporamartxo.

**ZEZEILAK 5
BEDIA**

16:30etik 19:30era, hilaren 12ra arte, 17an egingo dan Tolosako sagardotegirako urtekerarako izen-emotea liburutegian. Prezioa: 30 euro.

16:30etik 19:30era, hilaren 14ra arte, Miriam Herbonen *Emakume jakitunak* tailerrarako izen-emotea liburutegian. Tailerra zezeilaren 21etik bagilaren 12ra izango da. Sei saio.

16:30etik 19:30era, hilaren 16ra

arte, martiaren 3rako Ganguren Mendi Taldeak antolatutako Alto Campoora eski urtekerarako izen-emotea liburutegian.

16:30etik 19:30era, hilaren 16ra arte, martiaren 8tik 10era, Baqueirara eski urtekerarako izen-emotea liburutegian.

16:30etik 19:30era, hilaren 23ra arte, Kirol Erronkak jardueran parte hartzeako izen-emotea liburutegian.

Hilaren 23ra arte, Kolazino Mendi Egunean boluntario izateko izen-emotea kmebedia@gmail.com helbidean.

LEMOA

10:00etan, Lemoatx Jubiladuen alkarteak antolatuta, Txixi-burduntzi eguna. Ibilaldia eta txixi-burduntzia Aistin.

**ZEZEILAK 7
AREATZA**

19:30ean, Jai Batzordea udaletxean.

BEDIA

18:00etan, berbaldia *Liztor asiarra*. Hizlaria: Aitziber Mendibil. Erreginak harrapatzeako tranpak bananduko dira. Liburutegian.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, martiaren 1, 2 eta 3an Baqueira Beretara eskizterera joateko bazkideen izen-emotea Ganzabaleko lokalean.

**ZEZEILAK 8
DIMA**

18:00etan, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Osasun mentala eta generoa* tailerreko saioa eskolan.

IGORRE

20:00etan, Zinekluba, Nuri Bilge Ceylanen *Los climas* (2006) Lasarte Aretoan.

**ZEZEILAK 9
ARTEA**

Aratusteak. 16:30ean, guraso alkarteak antolatuta txokolatea eta musikea plazan; 19:00etan, kalejirea, Kokomarroak kalerik kale Kultur Etxetik urtenda.

IGORRE

Aratusteak. 17:00etan, kalejirea herrian zehar Arantzarte Dantza Taldeak antolatuta; 18:00etatik 20:00etara, disko festa DJ Ismagaz; 19:00etan, txokolatea Kultur Etxeko plazan.

ZEANURI

Aratusteak. 17:00etatik aurrera, Altxorraren jolasa; ostean ludotekan, banpiroz mozorroto eta plazara. Plazan mozorro desfilea.

17:30ean, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Autodefentsa feminista* tailerreko saioa.

ZEBERIO

19:30etik aurrera, Zeberioko Gazte Elkarreak antolatutako Futbolin Txapelketea.

Aratusteak. 18:00etan, txokolatea; 19:00etan, jantza-plaza eta musikea plazan.

**ZEZEILAK 10
AREATZA**

Aratusteak. 13:00etan, kalejirea musikeagaz; 15:00etan, baba-jana Bainuetxean; 18:00etatik aurrera, kalejirea herrian zehar Etxebarria aita- seme trikitilariakaz. Saria egongo da mozorrorik

onenarentzat, talde eta banakakoarentzat. Izena Bainuetxean emon behar da hilaren 8ra arte.

DIMA

Aratusteak. 18:00etan, txuxoak herritik, jantzaldia, txixi-burduntzia, Txuxoa erretea eta txokolatea. Plazatik abiatuta.

IGORRE

Aratusteak. 12:30ean, kalejirea herrian zehar Garbetik hasita; 15:00etan, herri bazkaria eskolako aterpean; 17:00etatik 19:30era, erromeria Fan&Go taldeagaz, tartean sari banaketea; 20:00etan, Kittu taldea ibiltari formatuan kaleetan zehar.

LEMOA

17:00etatik 20:00etara, umeentzako Inauteri Festa Udalak antolatuta kiroldegian.

23:30ean, Gauegun taldeagaz erromeria Karabie Gaztetxean.

UBIDE

18:30ean, mozorro desfilea plazan; ostean, txixi-burduntzia Korrikaren alde, Korrikako kilometroa erosteko diru bilketea egongo da. Plazan.

**ZEZEILAK 11
ARANTZAZU**

18:00etan, Mozorro eta Tostada Lehiaketak Herriko Tabernan. Ostean, txokolatea.

AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, animalia haragijaleen aztarnen bila Iñigo Zuberogoiaren eskutik. Izena aurretik emon gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

ARTEA

11:45etik 13:45era, etxeramartxo, Mikel Deuna jubiladu alkarteak antolatutako talo tailerra plazan.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Thabo y el caso del rinoceronte*; 19:30ean, *Perfect Days*. Lasarte Aretoan.

ZEANURI

Mezea Santa Ageda ermitan, koplak kantau eta ostean, barauskarria eta txistulariak.

**ZEZEILAK 12
BEDIA**

17:15etik 19:15era, Inauterietako tailerrak familientzat. Liburutegian.

**ZEZEILAK 13
ARTEA**

18:00etan, Iñigo magoa Kultur Etxean.

BEDIA

Inauteri jai. 17:30ean, sarrerea, *Photocall-a* eta desfilerako izen-emotea; 18:00etan, desfilea herri mailan; 18:30ean, Txintxeta, Klipa eta Txorroskilo pailazoak; 19:30ean, txokolatea. Frontoian.

**ZEZEILAK 14
BEDIA**

Jaietako Kartel Lehiaketea. Lanak aprilaren 14ra arte aurkeztu daitezke liburutegian.

LEMOA

17:30ean, Berbalagunak antolatuta II. Tostada Txapelketea Atxeta taberna atxean. Aldez aurretik izena emon arratia_berba@aek.eus helbidean.



GORBEIALDE
LANDA GARAPENA
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabari auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

BULEGOA ALOKATZEN DOT

Arrigorriagako erdigunean, homiduta eta lan egiteko prest dagoan bulegoa (45 m²) alokairuan. Kudeaketa, aholkularitza, aseguruak, eta abarrentzako aproposa. Prezioa: 450 euro. Telefonoa 665 709 651.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Alkarren ondoan dagozan garaje bi alokatzen dira Igorreko Elexalde kaleko 47 zenbakian, On Egin-en ondoan. Biak batera ala banaka alokatu daitezke. Batera egin ezkeru prezioa egingo da. Interesdunek deitu 615 723 646 telefonora.

ELONDO EGURRA SALGAI

Elondo egurra saltzean da. 40 metro karratu. Neurriak: 1,50 metro luzeera, 7 cm zabalera eta 1,07 cm lodiera. Prezioa: 20 euro metro karratu.

Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

LANA

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztebtean. Interesdunek deitu: 664 303 528.

FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

KLASE PARTIKULARRAK EMON ETA UMEAK ZAITZEAN DODAZ

Lehen Hezkuntzako umeei ingeles eta beste ikasgaietako eskola partikularrak emoten deutesdaz, martitzen, eguen edo bariku arrastietan. Umeak jagoteko be prest nago egun horreetan. Interesdunek deitu 650 842 292 telefonora.

Zeozor saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

begitu

Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Oppenheimer* filma ikusteko.

Maitane Iruarizaga (Zeanuri)
Maider Larrea (Areatza)



2

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Perfect Days* filma ikusteko.

Aritz Undurraga (Lemoa)
Mireia Ugalde (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
-
SABINO ARANA 38
IGORRE
-
TEL. 94 631 92 00

ASEGURUAK: **ZUZENBIDE**
AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-40-54

begitu
eus

begitu

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2024AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2024an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarreak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarrea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 40€ 60€ 80€

begitu.eus    

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazioa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus